




ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARRIDUNA
AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

IV Urtea | 1922'ko | Joñaila | 40 Zenbakia

Jesus'en Nekaldia Lukas'en Ebanjelioaren araura



Judas Iskariotes'ek saltzen du. (Luc. XXII-1-6)

U

RBIL zan, ba, Legami-gabe edo orantz-gabeen (1) jai-eguna, Pazkoa esaten zaiona: eta Apaiz-nagusiak eta eskiribauak bide bila zebiltzan Jesus lizarazitzeko: baño bildu zioten efiari.

Sartu zan ordea Satanas, Judas Iskariot deitzen zuten amabi aietako baten baitan eta joan zan eta itzegin zuan apaiz nagusi eta lenen-buruakin nola eskutaratuko zioten. Eta poztu ziran eta itz-eman zioten, dirua emango ziotela (2).

Artara jafi zan; eta nasketarik gabe aien eskutaratzeko eraren bila zebilen.

Jaunaren azkeneko aparria. (Luc. XXII-6-18)

Etofi zan, ba, Legami-gabeen pazkokia (3) il beaf zan eguna.

Eta biali zituan Pedro eta Juan esanez: joan eta jafi zaiguzute pazkokia, jan dezagun.

Aiek esan zioten. non nai duzu jartzea?

(1) Legami-gabeen jaia edo baita ere astea esaten zitzaion jai auetan edo aste ontan legami-gabeko ogia bakafik zilegi zutelako jatea.

(2) Beste Ebanjelioak diote «eskeñi zizkieten ogei ta amar zilañezko diru.» Gure 100 pza. bezela zan. Ori zan nagusibati bere jopu bat nai iltzen ba-zion ordaindu bear zitzaiena.

(3) Deitzen dugu Pazkokia Pazko egunean jaten zan umafia esan nai zualako. Au jaten zuten Ejipto'tik beren gurasoak atera ziran egun auean etxe guzietan jan zutenaren oroigafitako andik ateratzean Jaunak egin zien mesede aundiaren oroimenerako.



Eta esan zien: ara zuek urian sartzekoan, topo egingo duzute ur-ontzia daraman gizon bat: jafaio zaiozue sartzen dan etxeraño; eta etxeko nagusiari esango diozue: Irakasleak edo Erakusleak gaztigatzen dizu: non dago nik nere ikasleakin pazkokia jateko gela?

Eta afeak erakutsiko dizue apaltegi aundi, apaindua ta antxe jafi.

Joanik, bada, arkitu zuen esan zioten bezala eta gertutu edo prestatu zuen pazkokia.

Eta ordua etofi zanean jafi zan maiean eta Amabi Bialduak berarekin.

Eta esan zioten: gogo aundiz nai izan dut pazkoki auxe zuekin jan, neketara baño len.

Egiz esaten dizuet, bada, gargero eztutela ortatik jango, Jaungoikoa-ren jauntza beteko dan arteraño.

Gero arturik edari-ontzia, (1) eskefak eman zituan eta esan zuan: artu ta berezi zuen artean.

Esaten dizuet, bada, ez dutela edango mats-edaritik Jaunaren jauntza datoñeneraño. (2)

Eukaristiaren sorkundea. (Luc. XXII-19-30.)

Eta arturik ogia eskefak eman zituan eta puskatu zuan eta eman zioten esanez: Au da nere gorputza, zuengatik ematen dana: egizue au nere oroigafitzat.

Berealaxe edari-ontzia apaldu ondoan, esanez: au da alkartasun befi edari-ontzia nere odol zuengatik ixuriko danean.

Ala ere, ona, ni saltzen nauanaren eskua, nerekin dago maiean.

Baita gizonaren Semea erabakirik dagoan eran ba-dijoa: baño zorigaiztoa bera salduko duan gizon afi.

Orduan asi ziran galdetzen beren artean, beraietako nor izango ote zan olakorik egingo zuana.

Baita ere ezta-baia sortu zan beren artean, nork irudi zuan beraietan aundien izatekoa. Esan zioten ordea: efidietako eñegeak nagusitzen dira aietaz: eta beren gain eskua dutenai ongiñe deitzen zaiote.

Baño ez ala zuek: baizik zuetan aundien dana egin bedi txikiena bezala; eta agintaria mirabe bezala.

Nor ote da gero aundiagoa, jafi-ta dagoana edo ari ematen ari dana? ez da jafirik dagoana? Ni, ordea, zuen artean ematen ari dana bezala nago.

Zuek zerate, ordea, nere zirikaldietan nerekin iraun dezu-tenak.

Eta nik gertutzen dizuet, neri nere Aitak gertutu ziran bezala jauntegia. Jan zazuen eta edan zazuen nere mai gañetik nere jauntegian eta eseri zaitezten jaun alkietan Israel'go amibi leinuak edo tribu epaituz.

Eta esan zuan Jaunak: Simon, Simon, ara satanas'ek eskatu zaituzte garia bezala aizatzeke;

(2) Ardo au ez zan oraindik bere odol-egina.

(1) Esan nai du zenean Pazkoki gozogo bat egingo dugun arteraño.




baño nik eskatu dut zuretzat zure siñismena ez dakizun bukatu eta zuk noizpait on-beñiturik egiztatu zure anaia.

Afek esan zion. Jauna, prest nago zurekin giltzapera ta eriotzara ere joateko.

Afek, ordea, esan zion: zuri esaten dizut, Pedro, ez du gaur olafak iru aldiz oju egingo, zuk ezagutzen nauzula iru bider ukatuko duzuneraño.

Eta aiei esan zien: ez zaku, ez mutxil ta ez oñetako bialdu zinduzteda-nean zerbait bea izan al ziñuten?

Aiek esan zuen ordea: ezer ez. Orduan esan zien: orain ordea zakua



daukanak artu dezala mutxila ere: eta ez daukanak saldu dezala bere soñe-koa ta erosi dezala ezpata. (1)

Esaten dizuet, bada, oraindik bete bea dala nigan ezafirik dogoan au: gaizkileekin bat egiña egon zan. Neri dagokitena azkenekotan da. (2)

Aiek, ordea, esan zuten: ara emen bi ezpata. Afek esan zien: as o da.

(1) Esan nai du; orain arte nik begiratzen suan zuen bea guziaz, baño gaur-gero bakoitzak begira dezala bere buruaz.

(2) Nai du esan: Profeta edo Igarleak nitaz esana, oso betetzera dijoa.

Olibete mendiko otoitzaldia. (Luc. XXII-39-46)

Eta aterarik ba zijoan oi zuan bezala Olibeteko Mendira. Jañirik zioten bada ikasleak ere. Eta tokira iritxi zanean esan zion: otoitz egizue, ez zaitezten zirikaldian sartu.

Eta bera baztatu zan aiengandik afikaia baten bidean, eta belamika-turik otoit egiten zuan esanez: Aita, nai ba duzu, uruti zazu edari ontzi an nigandik; (1) baño ez bedi egin nere gogoa baizik zurea.

Agertu zitzaion, ordea, zeruko aingerua indafa emanez.

Eta iltzeko-zorian jañirik otoitz luzeagoa egiten zuan. Eta izardia atera zitzaion lufera ixurtzerañoko odol tantak bezala.

Eta otoitzetik goratu zanean eta bere ikasletara etofitzean, naigabeaz loak arturik arkitu zituan.

Eta esan zion: zer ari zerate lotan? zutitu, otoitz egizute, ez zaitezten zirikaldian erori.

Jesus lotua. (Luc. XXII-47-53)

Oraindik itz egiten ari zanean ara giza-sala: eta Judas deitzen zan amabitako bat aien aufetik zetofen; eta eldu zan Jesus'engana ari musu emateko.

Jesus'ek, ordea, esan zion: Judas musuz saltzen duzu gizonaren Semea?

Ikusirik, befiz, bere ondoan zeudenak, gertatzera zijoana esan zioten: Jauna, ezpataz joko ote dugu? (2)

Eta aietako batek eritu zuan Apaiz-nagusiaren mutiia eta bere eskuñeko belafia kendu zion.


Baño Jesus'ek erantzunez esan zuan: utzi zaiozue oraño. Eta bere belafia ikuturik sendatu zuan.

Eta Jesus'ek esan zion beregana etofi ziran Apaiz-nagusi eta Elizako Buruei eta zafai: lapufarengana bezala atera zerate ezpata eta makilakin?

Egunero zuekin Elizan nengoanean ez zifidaten zuen eskurik bota: baño da zuen ordua, ta iluntasunen indafarena.

(1) Edari-ontzia deitzen zion bere pasio edo nekaldiari, ainbeste naigabe irentsi bear zitualako berartan.

(2) Juan Santuak dakar: esan zion, bada, Jesus'ek Pedrori: sartu zazu zure ezpata zokoan. Nere Aitak eman zidan edari-ontzia ez dut ustuko? (S. Juan XXII-11)





GAU BELTZA

EDRO'K IRU ALDIZ UKATZEN DU

(Luc. XXII-54-62)

Loturikan, bada, eraman zuen Apez-nagusiaren etxera; Pedro'k, ordea, ufutitik jañaitzen zion.

Eskaratzaren erdian sua pizturik, inguruan eseririk zeudenian, Pedro aien erdian zegoan.

Ura ikusi zuanean neskame batek, suondoan jañirik, begiak ezañirik esan zuan: au ere afeekin zan.

Baño afeek ukatu egin zion esanez: emakumea, ez diñat ezagutzen ere.

Eta geroxago beste batek ikustean, esan zion: i ere aietakoa aiz. Pedrok'k, ordea, esan zuan: gizona, ez nauk.

Eta orduen baten bitartea joanik, beste batek egiztatzen zuan, esanez: Baita au ere afeekin zan: Galileafa da-ta.

Ea esan zion Pedro'k: gizona, ez zekiat zer esaten ari aizen. Eta afeek itzezin zuan bezala olañak kantatu zuan.

Eta itzulirik Jauna, begiratu zion Pedro'ri. Eta gogoratu zitzaion Pedro'ri Jaunak esan zion itza: olañak kantatu baño len, iru aldiz ukatuko nauzu. Eta atarira aterarik, Pedro'k negafa min egin zuan.

Ista ta maxia egiten diote, goizean beren batzafean loturik daukate. (Luc. XXII-63-71)

Eta loturik zeukaten gizonak, ista (burla) egiten zioten joaz.

Eta estali zioten, eta jotzen zuten aurpegian eta galde egiten zioten esanaz: asma zazu, nor da jo zaituana?

Eta beste asko gauza esaten zizkioten biraoka (itz gaiztoka) Eta eguna etofi zan bezala bildu ziran efiko Zañak eta Apaiz-nagusiak eta Eskiribauak eta eraman zuten beren batzafera esanez: Zu ba'zera Kristo esan iguzu.

Eta erantzun zien: esaten ba'dizuet, ez didazue siñetsiko:

Galde egiten ba'dizuet beñiz, ez didazue erantzurigo, ezta ere askatuko.

Gaurgero, ordea, Gizonaren semea Jaungoikoaren indafaren eskubian eseririk egongo da.

Orduan esan zuten guziak: beraz Jaungoikoaren Semea al zera zu? Afeek esan zien: zerok diozue, ni naizela.

Aiek esan zuten orduan: zertako nai dugu oraindik lekukotasunik? Gerok entzun bai-dugu bere agotik.

Jesus Pilatos ta Erodes'en afean 1.º Ikustaldia. Luc. XXIII-1-12)

Eta zutiturik gizon pil ura, eraman zuten Pilatos'engana.

Asi ziran, ordea, salatzen esanez: Au arkitu dugu gure efiia biufitzen eta Zesar'eri petxa edo kotiza ordaintzea debekatzen eta bera Kristo Efegea dala esaten.

Pilatos'ek, ordun, galde egin zion: zu Juduen Efege al zera? Afeik be-
fiz erantzunez, zion: zuk diozu.

Esan zioten, ordun, Pilatos'ek apaiz-nagusiei eta giza pilari: ez dut ze-
renik arkitzen gizon ontan.

Aiek ordea gain ateratzen ziran esanez: nasten du efiia, Judea guzia ba-
fena erakutsiz, asi Galilea'tik eta oneraño.

Pilatos'ek Galilea entzun zuan bezala, galdegin zuan Galilea'fa al zan
gizona.

Eta Erodes'en eskupekoa zala ikasi zuan bezala bialdu zion Erodes'eri,
au ere egun aietan Jerusalem'en zan-eta.

Erodes'ek, Jesus ikusirik, poza aundia, artu zuan; aspaldian ikusi naiez
bai-zegoan, asko entzun zualako artaz eta uste bai zuan mirarien bat afeik
egin-da ikustea.

Itz askoz galdeak egiten zizkion. Baño afeik ezer ere ez zion erantzuten.

Apez-nagusiak eta Eskiribauak tente zeuden befiz, gelditu gabe ura sa-
latuz.

Erodes'ek bere gudari edo soldadutzarekin ista egin zion eta paña egin
zion soñeko txuriz jantzirik eta befiz itzuli zion Pilatos'eri.

Eta Erodes eta Pilatos egun artan adiskide egin ziran; len alkafekin
etsai ziran-ba.

Bigafen ikustaldia. (Luc. XXIII-13-16)

Pilatos'ek deiturik Apaiz-nagusi eta efi-buru ta efiari.

Esan zioten: ekafi d dazute gizon au efiia biufitzen duana bezala, eta
ara nik zuen afean galdeturik, ez dut arkitu gizon ontan zuek salatzen du-
zuen oietatik ezer ere.

Baño Erodes'ek ere ez; bialdu zaituet arengana ta ara eriotz emangafi
ezer ez dio afeatu. Ziorkaturik askatu egingo dut bada.

Barrabas baña txartzagotzat emana. (Luc. XXIII-17-25)

Bear zien, ordea, jai-egunagatik, bat askatu. (1)

Oju egin zuan bada efi-talde guziak batera esanaz: kendu au
ta askatu iguzu Barabas. Au, nasketa sortu ta
eriotz bat efiian egin zualako giltzapean sar-
tua zegoan.

Befiz ere itz-egin zien Pilatos'ek Jesus
askatu naiez.

Aiek, ordea, deadafe egiten zuen esanez:
gurutziltzatu zazu, gurutziltzatu.

(1) S. Juan'ek dionaz aditzen da
efazago gertatua: «Pazkoaz, lotu bat
zuei askatzeko oitura duzue; nai duzue
beraz Juduen efegea askatzea? Oju
egin zuen guziak befiz esanez: ez au,
baizik Barabas.»



Afek, ordea, irugafen aldiz esan zien: zer gaitz egin du, ba, onek? ez dut arkitzen beragan eriotz-emangafirik: ziorkatuko dut, bada, baño askatuko dut.

Baño aiek oju aundiaz eragiten zioten eskeka gurutziltzatu zezan; eta oien ojuak garaitzen zuten.

Eta Pilatos'ek erabaki zuan aien eskea egitea.

Askatu zioten, bada, eriotzagatik eta nasketagatik giltzapera bota izan zan eskatzen zuena; Jesus, befiz, aien naiera utzi zuan.

Jesus gurutzearekin. (Luc. XXIII-26-32)

Eta zeramatenean, (1) basetxetik zetoñen Simon zitzaion Zirene'tafa artu zuten eta jafi zioten gurutzea Jesus'en atzetik, eramateko. Jafaitzen zion, ordea, efiko pil aundiak eta emakumetatik; auek negafez eta zotinko zijoazkion. Itzulirik, ordun, Jesus aietara esan zuan: Jerusalem'go alabak, ez nitaz negafik egin nai izan, baizik zeroietaz eta zuen umeaz negaf egin. Etoñiko dira, ba, (anek) esango diran egunak: zorionekoak aur-gabeak eta umerik izan ez duten sabelak eta esnerik eman ez duten bulafak. Orduan asiko dira mendiei esaten: erori zaitezte gure gañera eta arkaitz-malkofai estali gaitzatzue. Eguf ezeaz au egin ba'dute igafaz zer egingo da?

Afeekin ba-zeramazkiten beste bi gaizkile ere iltzera.

Jesus gurutziltzatua. (Luc. XXIII-33-43)

Eta Kalbario esaten zaion tokira ziran ondorean gurutziltzatu zuen eta lapurak bata eskubian eta bestea ezkefean.

Jesus'ek zion, ordea: Aita barka zaiezu: ez dakite-ba zer egiten duten.

Eta bere soñekoak berexirik txotx egin zuten.

Eta efia tente begira zegoan eta nagusiak pafa egiten zioten aiekin esanez: besteak askatu ditu, aska zala orain bere burua, au baldin bada Kristo, Jaungoikoaren autatua. Pafa egiten zioten soldaduak ere beregana elduz edo urbilduz eta ozpiña eskeñiz eta esanez: zu ba-zera Juduen Efegea, aska zazu zure burua.

Bere gañean ezañirik zeukan ezañikia griego, latinez eta Ebreozko izkiaz: au da Juduen Efegea.

Zintzilika zeuden lapuretatik batek biraoa esaten zion ezanez: zu ba-zera Kristo aska zazu zure burua ta gu ere bai. Besteak ordea erantzunez esaten zion ezanez: Ik ere eztaukek Jaungoikoaren bildurik, beraren galbidean egon afen. Guk azkenean zoñ degulako, gerok egiñaz merezia zeramakiagu: onek ordea eztik gaitz apurik egin.

Eta Jesus'eri esaten zion: Jauna, oroitu zaitez nitaz, zure jauntzara zozenean. Eta Jesus'ek esan zion: beraz esaten dizut, gaur nerekin izango zera zoriontegi.

Jesus'en eriotza (Luc. XXIII-44-49)

Orduan seiетako garaitsua zan eta ilunbetak egin ziran luf guzian bederatitako orduraño. Eta eguzkia ilundu zan. (2)

(1) gurutziltzazera

(2) Mateo'k dio: bederatitako garaitsuan befiz oju aundiaz deadar egin zuan Jesus'ek, esanez: Nere Jaungoikoa, nere Jaungoikoa, zergatik utzi nauzu.?

Eta Elizako estalkia autsi zan erdiz-erdi. (1)

Eta deadaf egifnez oju andiaz Jesus'ek esan zuan: Aita zure eskuetan uzten dut nere gogoa (anima) ta auek esanez il zan.

Zenturion'ak gertatu zana ikustean Jaungoikoari gorapidea eman zion esanez: ziñez gizon au zuzena zan.

Eta an ikusteko ontan arkitzen zan gizaki pila eta gertatzen ziranak ikusiz zeudenak, bere bulafak joka itzultzen ziran. Bere ezagun guziak eta Galilea'tik berari jafaitu izan zioten emakumeak auek ufutitik ikusiz zeuden-

Jesus ilobira eramana (Luc. XXIII-50-56)

Ona, ordea, Jose izena zuan gizon Amardun-buru zana, gizon on eta zuzena zana. Onek ez zuan onetsi aien erabaki ta egiterik, Judea'ko Arimatea urikoa, onek ere Jaungoikoaren jauntza atxoitzen zuan. Au eldu edo urbildu zan Pilatos'engana eta Jesus'en gorputza eskatu zuan. Eta jetxirik mainderean bildu zuan eta oraindik iñor jafi gabe zegoan arpeko ilobian jari zuan.

Eta prestaerako (2) eguna zan eta astera zijoan larunbata. Berari jafaio Galilea'tik etofi ziran emakumeak ikusi zuten ilobia eta bere gorputza nola zegoan jafirik eta itzulirik maneatu zituzten likurtak eta ukenduak eta larunbategi geldo egon ziran aginduaren araura.

Jesus'en Berpiztea (Luc. XXIV-1-9)

Astearen lenengoan, franko goiz, etofi ziran ilobira prestatu edo maneatu zituzten likurtak eramanez; eta arkitu zuten afia ilobitik iraulirik; eta sarturik ez zuten arkitu Jesus Jaunaren gorputza.

Eta gertatu zan, ontaz buruak nasturik zaudela ara bi gizaki, tente agertu ziran beren onduen soñeko dir-dir'suaz jantziak. Aiek, ordea bildu-fiez zeudelako aurpegiak lufera makurtzen zituenen, esan zioten: zer bilatzen duzue bizia ilen artean? Ez dago emen, berpiztu da-ta. Oroi zaitezte nola itzegiten zizuen oraindik Galilea'n zan garaiean, esanez: gizon obendunen eskuetan jafi beafa, gurutziltzatu ta irugafen egunean piztu beafa zala.

Orduan oroitu ziran aren itzaz eta ilobitik itzulirik gauza auek guziak gatzigatu zizkieten amika aiei eta beste guziei.

Intza'tar Damaso A. O. M. C.

(1) Emen S. Juan'ek dakartza Jesus'en beste itzak esanez: zutik Jesus'en gutrte ondoan arkitzen zan bere ama eta bere amaren aizpa, Maria Cleofe ta Maria ta Maria Magdalena. Jesus'ek ikusi zuanean bada, ama ta maite zuan ikaslea, esaten dio bere amari: emakumea ofa zure semea. Gero ikasleari esaten dio: ofa zure ama. Ta orduzkero ikasleak beretako artu zuan. Gero jakiñik Jesus'ek guziak beterik zeudela, ezafirik zegoana bete zedin esan zuan: Egariz nago.— Gero ozpiña eman ziotenean esan zuan: Beterik dago guzia.

(2) Prestaerako eguna deitzen zitzaion ostiralari, egun artan prestatu beaf zutelako biramoneko jaierako beaf zuten guzia.



ENARAK

Egan dijoaz txio ta txio
enarak mendi-aldera,
ekaitz-aufetik etofi oi-dan
odei beltzaren antzera.

Basefi kaxkar ta uri aberats
gañetik igaro dira
ta efi guziak afiturikan
txori beltz aiei begira.

¿Noruntz dijoaz? ¿Zergatik ain goiz
iges-dagite gaxoak
beren maitasun-kabitan otzez
dar-dar utzita umeixoak?

¿Nork uxa ditu gure aurtxoen
pozgafi ziran txoriak?
¿Ez al-zituan, ba, uxatzen beti
gugandik negu gofiak?

Aguf, ba, txori ego beltz, aguf
gure ametsen irudi.
¡Ai! gaurko zuen txio saminiak
biotz-negafa dirudi...

Baña aiek beti txio ta txio
laixterka engan aufera,
Jerusalen'go alboan dagon
menditxo baten gañera.

Baña ¿zer da gauf mendi-gain ortan?
¿Zer dira ifintzi ta ojuok?
¿Gofoto-itxaso nastuaren ots
f'ekaitzan txistu f'ofuok...?

Gofotoa bai mendi osoan
su-gafetan gofotoa...
¡Ta mendi-goian gurutz batean
zintzilik beren Jainkoa...!

Ara enarak txio ta txio...
Ofa etofi mendira...
Gurutz-albora txio ta txio
Jaunagana eldu dira...

Eriotz beltza zearka engan
gurutzen-gañean ernai,
Jaunarengana etofitzeko
Jaunaren baimenaren zai...

Jaunak deadaf aundi bat dagi
ta makuftu du burua...
Deadaf dagi lufak ta lotsez
itzali da euzki-sua.

Ilil-ililik menditik-bera
enarak engan dijoaz
arantza bana daramatela
bakoitzak bere mokoaz...

Ilil-ililik Gurutz-albotik
datoz Gogo maitaleak...
¡Jaunai kenduta, zenbat arantza
dakafzkiten ¡ai! gordeak...!

¡Nork euki leizken bere egoak!
¡Nork izan beren biotza,
beren eztiatz eztitutzeko
Jaunan naigabe mingotza...!

JAUREGI'TAR K.





Gurutz-bidea



Elgoñiagan bildua

(Lizafa'ko Iñari Ak. ereskidetua)

P Andante

Zeñ es - ker - gais-to - ku - ak

mf

Je - sus ain es - tu - rik; i - zan - go da zu -

mf

re - tzat o - na da - - mu - tu - rik, i - zan - go



II

Sorbaldan afiturikan
Gurutze astuna,
Gure Jesus maitea
Iltzera dijoa.

III

Gurutzia pixua
Ezin eramantik
Eman dide lagun bat
Gaizki nai izanik

IV

Agertzen zaio Ama
Negafez bidean:
Ai! izer atsekabeak
Bien biotzean!

V

Simon Zirinetafa
Afitzen dute lagun;
Gurutzea eramaten
Ikasi dezagun.

VI

Pekataria non da
Zure erukia
Jesus'i garbitzeko
Malkoz arpegia?

VII

Gure gaiztakerien
Pisuaren pisuz
Bigafen aldiz emen
Erori da Jesus.

VIII

Jerusalengo alabak,
Ez niri negafik;
Negaf egin zazute
Pekatuak gatik.

IX

Ainbeste neke-miñez
Auldurikan Jauna
Irugañen aldian
Emen jo du lufa.

X

Guztien aintzinean
Jantzia kendurik
Geratutzen da Jesus
Gutziz lotsaturik

XI

¡O Jesus! gurutzean
Nik zaitut iltzatu;
Nere gaiztakeriak
Barka zazkidatzu.

XII

Eguzkia ilundu da,
Lapur biren erdian
Iltzera naramate
Josita gurutzia

XIII

Semearen gorpuzta
Jetxi dutenean,
¡Ai zer ezpata daukan
Amak biotzean!

XIV

Eortzi dutenean
Jesus'en gorgutza,
Itxaso samiña da
Amaren biotza,

Ez al diogu emango



ERUSALENDARAK atsedetik artu ezin dute, Golgota goyan ikusi dituzten gauzak ikusi ondorean. Jaungoikoaren Seme egiazkoa da, diote batzuek, Jesus'i eman dioten eriotzaz damututa; ez, gezurti aundia baidizik ezta, diote oraindik amofuz beteak fariseo zitak afoak; Jesus'en lagunak beñiz bildufez kiskurtuta, irugafen eguna itxoiten, zer gertatuko ote dan begira daude.

Eguna argitzen asi da. Sorkaldetik eguzkia lenengo izpiak bialtzen asi da. Bakaf bakafik agiri da Golgota gaina, bakaf bakafik gurutzea, Jaungoikoaren odolez bustitako besoak zerurontz jasorik, barkamen eske. Bealdean iru emakume agiri dira. Zer edo zer badaramate, ofen goiztar dabiltzanean. Golgota'ra ezpada...? Ez dituzte itz asko elkafekin egiten, oraindik gogoan dauzkaten gauz ilunakatik, baña zer edo zer, bildura edo sumatzen zaie, bidean batzutan elkafi begira gelditzen diranean esanaz:

Nork kenduko digu atean dagon afia?

Afitezkoa litzake emakume oyen kementa, ez bagenek beren maitasun ezin aundiagoa. Judea ta Galilea'ko erietan ibili dan bitartean, Jesus'en adiskideak izan dira, onen alde al zuten guzia gogoz egiñik.

Oraindik iru egun ezkira orain dijoazen bidetik Jesus'i gurutzea eramaten lagundu ziotela, ez beren indafakin, baña bai beren itz, beren malko ta samin-tasunarekin. Golgotan bertan ere ainbeste etsaien artean etzuten utsegin. Ilda gero, Jesus'en gorputza gurutzetik jetxi ta ilobira sartzen berak lagundu zuten.

Iru egun oraindik ezkira ilobian utzi dutenetik igaro ta ala ere ez ditu maitasunak pakean uzten. Eguzkiarekin jeikita or dijoaz aldapa gora bata bestea bizkortuaz; ilobia gudari edo soldauak zaintzen daudela jakin afen, ez die ajolik ematen; Jesus'en gorputza gordeta daukan afia ain aundia dalako, ez dute uste jasoko dutenik ta irurak jaso ezpadezakete, nork lagunduko die? gudari berak? nork bestela?

¡Aundia da benetan zuen maitasuna, Jesus'en lagun zintzoak, zuen aurian jafi ditezken gudari ta arkaitzak baño sendoagoa!

Etzitzaian alpefikakoa izan beren ustea. Illobira urbildu ziranen, ikusi zuten afia bere lekutik jasota. Bafena sartu ziran ta aingerua zuriz jantzia, eskubi aldean eserita ikusi zutenean, bildurtu egin ziran. «Etzaitezte bildur izan, esan zien aingeruak, gurutzean josi duten Jesus'en bila bazatozte, piztu da, ez dago emen, ara nun jafi zuten bere gorputza. Zoazte bere ikasleai esatera Galilea'ra aufetik joango zaizutela; an ikusiko dezute, berak zizuten bezela.

Nolako gozotasunez beteko zituzten beren biotzak itz oiek. Illobira erdi negafez urbildu ziran ta ara pozez beteak aingeruaren aotik jakin dutenean Jesus piztu dala ta gero Galilean ikusiko dutela. Galilean...? ez; askoz lenago. Luze-gia izango litzake ofenbeste itxoiñia, olako maitasun aundia erakutsi duten ema-



¡ Ez dago emen, berpiztu da-ta !

kumientzat. Mateo deunak dio ilobia utzita urirontz abiatu ziranean, Jesus bera agertu zitzaiera esanaz: Agur dagizuet; ordean oyek bereganatu, onetan muñ egin ta agurtu zutela.

Nolakoa da gure maitetasuna? Edozein gauzagatik bildurtzen dana edo afean jaritzen zaizkion nekeak garaitzen dituen? Emakume oien antzekoa baldin bada, oiei bezela guri ere agertuko zaigu Jesus egunen batean.

Bitartean uste edef au daukagu, zeruan guri begira dagola jakitea, gure maitasunarekin irabaziko degun lekuai gertutzen. Ikasleai eriotz-aufean esan zizkien itzetatik uste au datorkigu: Zuentzat lekua gertutzeroa noa ta gertu ondoren, zuen bila etofiko naiz, ni nagon lekuan, zuek ere egon zaitezien.

Gauza aundiagorik ez dizaguke eskeñi, ezta gauza txikiagorik ere eskatu. Berak iya dena ematen digu, gogoak, indafak ta graziak ugari; ala ere ezta naikoa, gure aldetik zerbait biar da, gure eskuetan dagona, oso efeza nai ezkeron... Zer dan? Borondate on pixka bat. Ez al diogu emango?

Azurzi O. M. C.

“AMA SEMEAK”



RU iltzetik zintziilik Urkamendi bizkafean, zegon Jesus. Maria, beriz, Jesus'en Ama gurutzearen ondoan arkitzen zan.

Ixura kupigarian Semea: ala berean Ama gaxua.

Semeen artean kuñunen-kuñunena, ta zerutar guztien pozatsegiña bada're Jesus, arantzazko burestunak bañututako buruak darion odolak beztu dio arpegi ederen artean edefena, boñeroak zigofaz gorputza lardakatu dioten bezela.

Azkenekotan dago ta ur ianña bat eskatzen badu're, iltzalien artean efukitu ta emango dionik eztago.

Autsez ta odolez iya itxiak dauzkan begiekin nolapait ikusten du Ama efukafia, gurutzepean txutik. ¿Nola amak, ez ikusi semearen begiratze gozo-urikafia?

Izan dan Amarik xamufenak nai luke Semea'ren gorputz odoldua, garbitu, bañan.. ezin!

Ama maitaleenak Semearen gorputza zauriz artesitua ikusten du: nai luke ba ukendu leunarekin igortzi, bañan... ezin!

Besoak luzatu ta al badezake bere bizkafa burukitzat Semetxoari eman...

Oñen muñufian bere gorputza altxatuaz, maitasunak indafa ontako ematen dio ta, egiñalak egiten ditu bañan:

alper-alpefik, Amatxo samindua, goragi baitago Jesus... ta egiñalian buruba luzatuta're gurutze utsa besarkatzen dezu eta bakafik zure sabeleko Semeak mara-mara darion odol bikañak ezañak bustitzen dizkitzu.

¿Ote da Maria'ren samintasuna bezalako samintasunik?... ¿Ote dago Mariaren nekeak bezelako nekèrik?

Emakume Israelafan artean berdiñik gabe eder ta garbia, bada're neke-oñaze ta samintasun gogofenetakoen aztarnak dauzka Mariak.

Loretegieta liliak bañon txumiagoak diran eskuak ubeldu zaskio: arpegi kutsugabe- liraña're naigabez moteldu zaio.

¿Norekin irudi'eraiziko zaituk Israelko Birgiña? ¿Norekin berdindu Siongo alabatxoa? Itxasua bezin neuri gabea da, bai, zure naigabea!!

¡¡Ama atsekabetua, Ama minduna, Amatxo lafitua!! Atsekabetua ikusirik, ta zure atsekabeen ezua nerea dala jakinta're utzi, utzi nazazu, Amatxo laztana, bi-otz-biotzetik zuri esaten: Ave, doloribus plena: Agur atsekabez betearen zeuden nere Ama Maitia..,

Oyartzuna O. M. C.

Ama Nekatsua



AMALDAKA jeixten asi ziran Juduak Kalbario-menditik. Atsaldezo iruak ziran, baño eguzkia ilundu zan. Ixil, ixilik, eta ilunbeta ar̄k ikaratuak, zer egin eztakite-la, etxerontz zijoazten denak.

Orduan, Jesusen adiskideak, uste edo konfiantza geiagoo artuaz eta trabarik gabe, urbildu zitzenen bere Jesus maitagarriari, gurutzearen ondoraño.

Ona emen San Juan Ebangelariaren itzak: «Txutik, Jesusen gurutzapean, zauden Jesusen Ama, onenaizpa Maria Kleofas eta Maria Maria Ma-dalen».

Elizak ere esaten digu, Ama samindu ura, negar̄ez urtzen, baño txutik eta biotzdun, an zagola, bere Semea zintzilik zaukan gurutzearen ondoan.

Ezta aĩtzekoa Jesusen Amak negar egitea. Baño etzuan zentzua galdua, batzuk gaizki dioten bezala; bazakian alabaña, Aitak nai izan ezpalu iñork etzezakiola bizia kendu, eta, or̄engatik, naiz biotza erdibiturik, «egin bedi zure naia» esar̄az, Aitari, gogoz eman zion Semea. Baño ¿negar etzuan egifien bada, Seme bakar ura, semerik onena, Jaungoikoa, bekatar̄i guzien utsegiteak bere gain artu ta, aietarik gaixtoena bezala erabilia ekusirik? Ura izandu zan, Simeon igarle-profetak esan zuan bezala, alde batetik bestera zultu zion ezpata zoĩotza.

Orduan esan zitzaken Ama naigabetu ar̄k., Jeremias igarlearen

itzak; «¡A zuek, bide ontatik barna zoazten oiek!, gelditu eta begira nere ofiazea bezalako ofiazerik bai ote dan.»

Ala ere, gutaz oroi da; eta gure salbatzeagatik, eskeintzen dio Jaungoikoari, ez bakañik Semearen odol ugari eta aberatsa; baizik baita bere biotzak artzen ditun ofiaz bizi aiek.

Auek guzik ala izan ta, Jesus ere oroitu zan beañez bere Ama maiteaz. Ekusirik bada gurutz ondoan Maria bere ama eta Juan ebangelaria, idikitzen ditu begiak, eta Amarengana itzuliaz, ezti, ezti esaten dio: «Andrea' oña zure Semea.» Eta gero ikasleari: «Oña zure ama» ¡Ura Amabirjiñaren naigabea! ¡Nola biotza larituko zioten itz-aiek! Jainkoaren Semearen orde, gizon baten semea ematen dio. ¿Zer egiñen zifukete zuek, amak, eriotzeko orduan, zuen seme bakañak, añen orde bere adiskide bat utziko balizue? ¡Ura zuen begien negaía! Baña era berean, zeren biotzeko puska aiek emana zalako, gogoz artu ta, beti seme egiazkoa bezala maite egiñen zifukete gazte ura.

Auxe bera egin zuan Jesusen Amak ere: Negañez, baño gogoz artu zuan bere semetako, Jesusen ikasle maiteena; S. Juanek beñiz, pozik baño pozikago, beti maite izan zuan Maria bere ama bezala, eta bizitu zan bitartean, aren seme eta lagun zintzoena izandu zan.

Gañera, badakizue zer dioten Elizako Guraso Santak: Juan deuna, ordu artan, gu guzion izenean eta orde zegola. Ofengatik bada, orduntxe berean agindu zigun Jesusek guretzat artzeko bere Ama deatsua; eta bere Amari, gu semezat artzeko.

Maite zagun bada, gure Ama samintsua, eskatu zaiogun, Jesusi beñere naigaberik ez emateko laguntza, iru Agurmariak goize-ro ta gabero eman zazkiogun, eta tentazio guztan deitu zaiogun.

¡Ama neketsua! gutaz eruki, gu zutaz erukitzen geran bezala.

A. I. M. A.

OARA

Lengo ileko abestia (cantua), Lekarotz'ko Eliz Nagusian, igandero Efo-sario ondoan adore xamufez, gizonezkoak eta emakumezkoak aintzifetik kantatzen dute Ama Nekatsuari iru argi pizturik.—Gañera, Kantuaren bigafengo *do* (melodian), bekuadro gabe ondo etzagoala, efex ezagutuko zenduten.

Asketsi, barkatu uts ori, eta okefa zuzendu.

